

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko maiatzaren 15etik 21erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/15

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Kapital sozietateak.** – Akats-zuzenketa, honako lege honena: 5/2021 Legea, apirilaren 12koa, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege-dekretuak onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina eta beste finantza-arau batzuk aldatzen dituen, sozietate kotizatueta akziodunen epe luzeko inplikazioa sustatzeko. **8031 xedapena - 1 or.**
- **KANPO ARAZOETAKO, EUOPAR BATASUNEN ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA. – Nazioarteko administrazio-akordioak.** – Administrazio-akordio Estandarra, COVID-19ari Erantzuteko eta Leheneratzeko Funtzari buruzkoa, zeinaren bidez funtsen bitartekaritza-kudeaketa aurreikusten den; 2021eko martxoaren 15ean New Yorken egina. **8032 xedapena - 53 or.**

2021/05/18

- **OSASUN MINISTERIOA. – Substantzia eta produktu psikotropikoak.** - SND/473/2021 Agindua, maiatzaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen den 2829/1977 Errege Dekretua, urriaren 6koa, substantzia eta prestakin medizinal psikotropikoak eta haien fabrikazioaren, banaketaren, preskripzioaren eta ematearen fiskalizazioa eta ikuskapena arautzen dituen. **8188 xedapena - 3 or.**

2021/05/19

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** - 10/2021 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 18koa, premiazko neurriak hartzen dituen "Filomena" borrasak eragindako kalteak arintzeko. **8263 xedapena - 12 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. – Neurri osagarriak. COVID-19a.** – Ebazpena, 2021eko maiatzaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19ak kaltetutako enpresa eta autonomoak babesteko neurri osagarriak hartzen dituen apirilaren 20ko 6/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **8264 xedapena - 1 or.**

- **Premiazko neurriak.** – Ebazpena, 2021eko maiatzaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege-dekretua. Horren bidez, Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten da, lehiaren arloan, kapitalen zurtzearen prebentzioan, kreditu erakundeetan, telekomunikazioetan, zerga neurrietan, ingurumen kalteen prebentzioan eta konponketan, nazioz gairikoa zerbitzuak emateko langileen joan-etorrietan eta kontsumitzaileen defentsan. **8265 xedapena - 1 or.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Aisialdirako ontziak.** - 339/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, aisialdirako ontzien segurtasuneko eta kutsadura prebenitzeko ekipamendua arautzen duena. **8268 xedapena - 21 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. - Laguntzak.** - 341/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, energia-trantsizioak eragindako eremuetako ingurumena lehengoratzeko laguntzak zuzenean ematea arautzen duena, ikatz meatzaritzak kaltetutako eremuetako proiektuei dagokien Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. **8270 xedapena - 14 or.**
- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA. - Hauteskundeak.** - 1/2021 Instrukzioa, maiatzaren 13koa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, hauteskundeetako propagandaren zabalkundea hartzailearen izen-deiturak adierazi gabeko bidalketen bidez egiteari buruzkoa. **8271 xedapena - 2 or.**

2021/05/20

- **BARNE MINISTERIOA. – Babes zibila.** – Ebazpena, 2021eko maiatzaren 19koa, Idazkariordetzarena, 2021eko maiatzaren 18ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. Horren bidez, Itsasikaren Arriskuaren aurreko Babes Zibileko Estatuko Plana onesten da. **8361 xedapena - 20 or.**

2021/05/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Klima-aldaketa.** - 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa. **8447 xedapena - 44 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/484/2021 Agindua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen den INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioa beste

herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publiko eta osasun publikoko arrazoiengatik. 8449 xedapena - 2 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/05/20

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - 132/2021 DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urterako jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. 2878 xedapena - 2 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/17

- **Gizarte Ekintza Saila.** - Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 28326/2021 FORU AGINDUA, maiatzaren 14koa, zeinaren bidez bisitak eta irteerak arautzen baitira egoitza-zentroetan. I-418 xedapena - 4 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/05/17

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren arteko lankidetzak hitzarmena, honek eskatutako zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko. 2103130 xedapena - 4 or.
- **KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA.** - Gipuzkoako lurralde eremuko museo zentroein dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak eta 2021-2022ko ekitaldietarako deialdia. 2103407 xedapena - 5 or.

2021/05/19

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNeko DEPARTAMENTUA.** - 73/2021 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, enpresak sortzeko prozesuetan konprometituta dauden pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak ematen dituzten profesionalak eta entitateak homologatzeko prozesua arautzen duena. 2103242 xedapena - 8 or.

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.** - Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko 2021eko deialdia. **2103242 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/05/20

- **GOMENDIOAK.** – Batzordearen 2021/801 (EB) Gomendioa, 2021eko maiatzaren 18koa, COVID-19aren krisian izandako galeren tratamendu fiskalari buruzkoa. **L 179/10 xedapena - 3 or.**

2021/05/21

- **GOMENDIOAK.** – Kontseiluaren 2021/816 (EB) Gomendioa, 2021eko maiatzaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen den 2020/912 (EB) Gomendioa, EBra funtsezkoak ez diren bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzkoa. ST/8822/2021/REV/1. **L 182/1 xedapena - 5 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO